
Pil Bil ean

“Armeros Vascos” Ramiro Larrañagaren azken liburua



Soraluzeko aldizkaria 38. alea 2001eko iraila













DOLUA HERRIAN

BADATOZ BERRIRO MULTIESKAINTZAK!

Bonardi monturak familia guztiarentzat.



BONARDI MONTURAK 4.150 PTA. (24,94 €)

Distantzia guztietara ondo ikusteko.

LENTE* PROGRESIBOAK 19.500 PTATIK AURRERA (117,20 €)



MONTURAK + KRISTALAK* UMEENTZAKO 8.900 PTATIK AURRERA (53,49 €)



MONTURAK + KRISTALAK* 60 URTETIK GORAKOENTZAT 8.900 PTATIK AURRERA (53,49 €)



* Eskaintzaren balioa ± 4 ESF. ± 2 CIL lente txuriendako da. Eskaintza hauen balioa 2001/10/31 arte da.

MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA
Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA
EIBAR
Bidebarrieta, 2 EIBAR
Tel. 943200522
B.P.S. 164/99








Tornileria-estanpazioa eta extruzioa hotzean

GOL, S.A. Industriak
Sagar Erreka, 19 45 PK
20590 SORALUZE
Tfnoa. 943 75 21 00 / http:www.gol.es





Asier Heriz eta Iñaki Saez

Euskararen aldeko ahaleginean beti izan zineten bidelagun. Barru barrutik maite zenduen zeuen hizkuntza eta bera zaintzen saiatu zinaten bizi izan zineten artian.
Agortuko ez dan itturri eder bat jaio da zuenganako oroitzapenetik, egarrixak garenian ur freskua erateko balioko doskuna.
Eskerrikasko Asier eta Iñaki,
beti izango zarete gure bihotzetan !

Pil bil ean

Editoriala

Zer esan... Asier eta Iñaki hil ziranaren barrixa jakin orduko tristura zabaldu zan herrixan. Senittartekuak, lagunak, ezagunak ... danak apurtuta. Barrixa jakin arren eta behin eta berriz entzun arren, ezin sinistu Asier eta Iñaki hil ziranik.

Hurrengo egunetako ekitaldixak, senittarteko, lagun, ezagun eta herrixaren mina eta amorrua kanpora etara eta adierazteko aukeria emon zeben. Lurdesen bihotza alaittu nahixan, eurak bizitza galdu biharraren gogortasuna aipatu zan Asier eta Iñakiren omenaldixan eta halaxe da. Asier, Iñaki eta Irantzu Euskal Herritik urrin Avilan espetxeratuta daguan Lurdesi bere bakardadian berotasun pixkat emotera zoiazen eta bidai horretantxe topatu zeben hiruretako bik heriotza.

Asko eta asko, onduan jotakuan eta negarra begixetan dala konturatzen gara sakabanaketiaren arazuaren handittasun eta larrittasunaz . Beste askori aurpegia gorrittu biharko litzaieke, ahua beteta, euren buruak demokratatzat aurkeztu eta sakabanaketa metodo basati honen aurrian ixilik geratzen diranian.

Sakabanaketiak eragindako ondorixo danen parte txiki bat ikusten dogu askok, begixak ixten doskuezelako, baina presuak, euren senidiak eta lagunak, ondorixo danak sufritzen dittue euren azalian. Euskal Herrixak esan dau mila aldiz, euskal presuak Euskal Herrixan nahi dittuala baina Frantziar eta Espainiar estatuak sakabanaketa eta tratua leundu ez eta gogortu egin dabe. Telebista, irrati, egunkari eta alderdi askotatik, presuak, euren senidiak eta lagunak gorrotatzeko agintzen doskue, baztertzeko eta agoniazko sufrimendu baten hiltzera kondenatzeko. Zela egingo dogu hori ? Zela egingo dogu maitte dittugun lagun, ezagun eta senidien kontra ? Horretara bihartu nahi gaittue baina ez dabe lortuko. Berriz eta berriz eta berriz, bihar dan aldi danetan esango dogu, Euskal Presuak Euskal Herrixan nahi dittugula. Zegaittik ? Ez dogulako gure ezagun, lagun eta senidiak gehixago hola sufritzen ikusterik nahi.

Eta beste hainbeste aldiz Euskal Herrittarrak daukela bere buruarekin zer egin erabakitzeko ahalmena eta hori errespetatu egin bihar dala be esango dogu. Zegaittik ? Ez dogulako inoren menpian bizi nahi eta benetako demokrazia eta justizian sinisten dogulako.

Danon artian eta danon ahaleginarekin lortuko dogu Euskal Herrixan askatasunian eta bakian bizitzia, danon artian.

Ahalik eta bizkorren, zuen ezpain eta bihotzetan berriz be irripar goxo bat ikusteko itxaropenez, besarkada bero bat eta animorik beruenak Asier eta Iñakiren senitartekuori, batez be Irantzuri eta Lurdesi

Asier eta Iñaki goguan izango zaittuztegu beti, pertsona eta bidailagun ahaztezinak izan zarielako.

Sakabanaketarik ez, Euskal Presoak Euskal Herrira !

Euskal Herrixak esandakua errespetau !

Pil Pilean

38. alea

Argitaratzailea:
Pil Pilean Kultura Elkartea

Frontoi kalea 5. behea, PK 27 - 20590 Soraluze. Telefonoa 943 75 13 04

Lan taldea:

Amaia Agirre, Enara Agirre, Elene Alberdi, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Maria Azkona, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Izaskun Gartzia, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Gorka Prieto, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno

E-maila: Pilpilean@euskalnet.net
Publizitatea: Jon Oregi (943751304 tel.)
Banaketa: Pil Pilean
Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.
Lege-gordailua: SS-537-2.000
C.I.F.-a: G20696563
Azala: Aitor Madrid
Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

*Pil Pilean*ek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ALDIZKARI HONEK ERAKUNDE HAUEN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU EUSKARA BULTZATZEKO.

SORALUZEKO UDALA — EUSKO JAURLARITZA — GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kolaborazioa



Benetako justiziaren ordua

Mikel Santiago

Irailaren 11n New Yorkeko dorre bikiek jasandako erasoa luzaroan izango dugu gogoan. Eraso tamalgarria izan da ekarri dituen heriotza guztiengatik –bost milatik gora desagertu- bai eta nazioarte mailan ekar ditzakeen ondorioengatik ere. Estatu Batuek beren lurraldean ez dute horrelako erasorik izan Pear Harbour ekoa gertatu zenetik, nahiz eta ordutik munduan zehar izan diren gatazka zenbaiten atzean izan. Izua izan da nagusi Estatu Batuetan eta mundu guztiak zuzenean ikusteko aukera izan du. Hasieran hegazkin istripua zirudiena berehala ikusi zen hori baino gehiago zela, bigarren dorrearen kontra beste hegazkin batek jo zuenean.

Ordutik egun batzuk igaro direnean, argitu gabe dago oraindik nork burutu duen erasoa eta zein izan den horrelako gauza bat egiteko arrazoi zehatza. Ekintza terrorista bat izan da, ala gerra deklarazio bat? Estatu Batuek gerra deklarazio gisa hartu dutela nabaria da eta argi azaldu dute erantzun gogor bat emango diotela "luzaroan eta modu zikinean". Kezkagarria da modu horretan erantzungo dela jakitea, eta are kezkagarriagoa Europako estatuek hartu duten jarrera. Izan ere elkartasunaren aitzakia erabiliz nahi dutena egiteko askatasuna eskaintzen baitzaie Estatu Batuei. Bushek gainera argi utzi du, "gurekin ez dagoena terroristekin dago".

Estatu Batuek aurkitu omen dute erruduna eta erasoari ekingo diote. Erasoa jasan eta gero ezinbestekoa zitzaien errudun bat izatea, eta horra hor, Bin Laden. Milaka soldadu hurbildu dira dagoeneko Afganistanera amerikar heroi bihurtzeko asmoz. Baina, aurkeztu digu inork frogarik Bin Ladenen errua erakusteko? Afganistango herri osoak jasan beharko du erasoa?

Estatu Batuetan gertatutakoarekin ados ez nagoen arren, ezin dut eurek egin nahi duten erasoaren alde egon. Ezin dute jokatu nahi dutena eginez. NATOk bere elkartasuna azaldu du Estatu Batuekin Washingtongo Tratatuaren bosgarren artikulua aipatuz, honek "eraso armatu" bat jasandako kideekin solidario izatera behartzen baititu beste kideak. Baina munduko edozein estatuk bezala, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren babes esplizitu bat beharko lukete Estatu Batuek horrelako eraso bat burutzeko. Bestalde, gero eta premiazkoagoa ari da bihurtzen Nazioarteko Auzitegi Penal bat izatea horrelako gertaerak aztertu, epaitu eta zigortu behar badira behar diren berme guztiekin egiteko. Baina Estatu Batuak beti egon dira horrelako erakunde baten aurka, agian beraien hainbat ekintza epaituko liratekeelako horrela.

Erasoak ez dira gatazkak konpontzeko bidea, eta edozein erabaki hartu baino lehen, aztertu egin beharko litzateke ea zergatik Estatu Batuen politikak horrenbeste gorroto sortzen duen munduko hainbat herritan. Honekin ez dut ezer justifikatu nahi, baina uste dut horrelako momentuetan egin behar dela ahaleginik handiena, indarkeria mota guztiak alboratuta gatazkei konponbide bat emateko elkarrizketa eta negoziazioa bultzatuz. Justiziaren ordua da, ez mendekuarena.

Mendekuak ez du inolako konponbiderik ekarriko, heriotza, samina eta hondamendia besterik ez. Eraso hau munduko herri askotara hedatzeko arriskua egongo da, baina hori baino askoz ere garrantzitsuagoa omen da amerikarrek galdutako ohorea berreskuratzea eta justizia infinitoa munduari ekartzea. Benetako justizia behar du munduak, baina ez estatubatuarrek horrenbeste lekutan erabili duten hori. Eskerrak eman beharko dizkiegu oraindik gainera!

Gutunak

Asier eta Iñaki

Agur eta besarkada bat Asier eta Iñaki, beste gazte asko moduan, auto-istripu baten juan zarie, baina oinguan gure minari, etsipena gehitzen jako. Lurdes, herriko presua bisitatzera zindoaziela, bidian geldittu zarie, dispersiñuan, errepresiñuan biktima.

Preso eta senidien sufrimentua gehitzeko egindako politiken ondorixo zuzena da, zuek oin gure artian ez izatia. Eta holan, zuen heriotzak, beste gauza asko ekartzen doskuz gogora, torturak, jipoiak, isolamenduak... ohe huts eta malko larregi.

Eta azken agur hau salaketa bihurtzen dogu, gobernuak aurrera daroien espetxe politika krudelak, pertsona danon eskubidiak zapaltzen dittualako, gizarte guztia zapaltzen dabelako. Eta horrek diralako zuek faltan izatian erantzuliak. Agur eta ohore zueri, elkartasun keiñu bategaittik bidian hil zarienori, eta besarkada bat zuen senide eta lagunei, bereziki Lurdesi eta Irantzuri.

Soraluzeko Gaztetxeko Gazte Asanbladia

San Andresko ospakizun erlijiosoak zergaitik isildu....?

San Andres auzokoak bereziki prestatuak zeuzkaten Uztailaren 8 eta 9ko Ospakizunak, beren programa eta guzti: 11etan meza santua, urtero bezala; ondoren frontoi eta bolatoki berri bikainen bedeinkapena eta inaugurazioa eta astelehenean aintxinatik ohitura den bezala, auzoko hildakoen alde meza santua. Arazorik gabe, gauzak horrela bete ziren; eta jendearen erantzun ederrarekin, gainera.

"Aldizkari" honetan San Andresen ospatzera zijoazten festak aurkezterakoan, beste ekintzak ez bezala, ospakizun erlijiosoak aipatu ere ez ziren egiten; bakarrik, asteleheneko mezari buruz, hamabietan "zita" bat genduela, adierazten zuen.

Beste errespeto bat merezi dutela uste dut, auzo guztiak hain bikain eta gogoz antolatzen eta bizitzen dituzten ospakizun erlijioso horiek, eta horregaitik gogoratzen dut orain, orduan egindako salaketa, bere zentzuan ulertua izan dadin.

Nere ausnarketan ez nenbilen guztiz bide galduta, noski, eleizkizunak ixildu eta beste ekintzak halako arretaz aipatzerakoan, -esate baterako "striptisa"- gaurko giroa deskribatzen zala aitotu nuenean. Orain berrehun urte Frantziako Iraultzan (Erreboluzioan) gertatutako istorio bat bururatu zitzaidan. Parisko "Notre Dame" katedraleko aldare nagusitik Ama Birjinaren irudia bota eta emagaldu bat jarri zuten bilutsik bere lekuan.

Sasi-jainkoz beteta daukagun gizarte honetan, kontuan hartzeko gertakizun sinboliko esanguratsua deritzait.

Beste pentsabide batetik hasita, Jose Migel Barandiaraneri entzundako hau zetorkidan burura: Euskalherriarekin honela jokatzen dutenak baditugula gaurko egunean: "Intxaurra bateri barruko mamia (kristau-fedea) kendu eta bere ordez listorra edo erlemindua sartu eta gure herria hori dala esanez, guk intxaurra hori onartzea nahi dutenak".

Izandako txarkeria baino gehiago ikusi al nuen? Barkatu hala bada, bainan mingarri eta ezegokia deritzait, salatzen dodan "isilpena".

Oharra: Jainkoaren Hitza irakurria, eta gainera, azaldua izan zen, meza hartan.

Jokin, apaiza

Oharrak

KILOMETRUETARAKO ETA NAFARROA OINEZERAKO AUTOBUSAK SORALUZETIK

Euskalgintzak antolatuta autobusak ipiniko dira Beasainen urriaren 7xan eta Lodosan urriaren 21 ian egingo diran, Kilometruak eta Nafarroa Oinez jaixetarako. Preziua: 1.200 pezetakua izango da eta izena emoteko orrixak Gilan eta Arranuan jarriko dira.

GAZTAÑERRE EGUNIAN "HERRI BABAJANA"

Aurten, Euskalgintzako Taldiak antolatuta Herri Babajana egingo da Gaztañerreko ferixa egunian. Aurrerago jarriko dira izena emoteko orrixak baina dei egitten jatzue kuadrila danori egun horretan herri bazkarixan izena emoteko.

EUSKALGINTZA

HEGO AMERIKAKO HAURRENDAKO ESKOLA MATERIALA

Irailean hasi eta urriaren amaierarte, eskola materiala jasoko da Postetxean (Korreosen). Batutako materiala, Unicef erakundearen bitartez Hego Amerikako umieri bialduko jakue.


EUSKAL HERRIKO KROMO BILDUMA

Euskal Herriko Ikastolen Elkartiak prestatuta, aurten Lodosan egingo dan Nafarroa Oinezekin batera, gure herriaren kulturaren irudiak biltzen dittuan kromo bilduma bat etara dabe. Kromuak herriko kioskoetan dare salgai eta dagoeneko Soraluzetar asko hasi dira kolekziñua egitten. Animo egin zeuk be !

Oharra: Ahalik eta iritzi gehienek lekua izan dezaten, ez da komeni makinazko 15 lerro baino gehiago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena eta datu pertsonalak agertu beharko dute. Bidali gutuna ***27. Posta Kutxatilara - 20590 Soraluze.*** Laburtu behar izanez gero, ***Pil-Pilean***ek horretarako eskubidea izango du.

Vidal frutadenda

Zure frutadenda



Etxaburueta 2
Tfnoa 943 75 20 55
20590 Soraluze




SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Zein da gogorragua, iraileko ala urtarrileko aldapia?




Jose Antonio Salgado
21 urte,
Langillia

Urtarrillekua da txarrena, gabonetan asko gastatzen da erregalotan.... hala ta be, hori ez jata geizki pentsatzen, hau da, familixan dirua gastatzia. Bueno, egixa esan bi aldapak be antzerakuak dira, ni behintzat oporretatik bueltan xentimorik gabe egoten naiz.



Iraider García Deza
16 urte
Ikaslia

Neretzako iraillekua da gogorrena, eskolara bueltatzia dakar-eta horrek, eta egixa esan ez da bape pozgarrixa. Diru aldetik nik ez dot aldaketarik izaten, gurasuak emoten dosten bittartian...



José Aiora
41 urte
Langillia

Ba igual iraillekua egitten da gogorrena, udan neurririk gabe gastatzen dogu, konturatu gabe, eta gero iraillian lanian hasteko goguak be izaten dira, pixka bat normaltasunian sartzeko. Gabonetan ez da hain gogorra egitten, paga extrak jasotzen dira eta horrek asko laguntzen dau, gaiñera neguan gutxiago irtetzen gara kalera eta ondorioz gutxiago gastatzen da.



Nieves Zazo Martín
70 urte
Etxekoandria

Ez da bata bestia baiño gogorragua, gauzia trankilidadiakin eta konformidadiakin hartzia da, datorrena datorren moduan hartzia. Baiña beste batzueri begiratuta, iraillekuak aldapa haundixagua dakala uste dot. Seme-alabak dazkenak adibidez, liburuak, eskolarako gauzak eta abar erosi bihar dittue, eta gauzak urtarrillian baiño gehixao pentsau behar dira, ze orduan paga extrekin eta, errezagua da.



Luis Zubiaurre
60 urte
Jubilatua

Bixak dira dudarik gabe txarrak, bixak igualak. Ni biharrari lagata nao, eta lanerako buelta nekez hori ez dot oin eukitzen , diru aldetik izaten da aldapa haundixena normalian. Gabonetan eta holako fetxetan hainbeste gastatzia norbere esku dago, norberak ikusi bihar dau ze bihar dittuan.



Rosa Garai
83 urte
Jubilatua

Nere ustez, urtarrillekua da haundixena. Negua luzia da, hotz haundixa egitten dau, eta nekezagua suertatzen da gero datorrena. Iraillekua batzuk esaten dabe gogorra dala, baiña nik ez dot asko igartzen.

Ugaitz Catalan
Eguzkiñe Aldazabal



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



33 Ume berri eskolan

"Heldu da bakia" entzuten da sarri gurasuen ahotik, seme alabak, batez be gaztetxuenak, eskolan hasten diranian. Soraluzeko neska mutikuak irailaren 10ian hasi zeben aurtengo ikasturtia.

Aurten, 33 izango dira eskolara lehenengo aldiz juango diran umetxuak. Honek igoera nabarmena suposatzen dau 1999an matrikulatu ziran 14 haurrekiko, esaterako.

Aurten 2 urte beteta edo betetziar daren umiak dira gaztetxuenak. Oindio berbetan be ondo ikasi barik daren "sapaburu" horrek, "egokitze prozesu baten sartzen dira, leku eta egoera berrira poliki-poliki egokittu daittezen" eta gurasuak be eurekin egoten dira eskolan.

Zuzendaritza karguei dagokienez ez da aldaketarik izango. Herri Ikastetxeko zuzendari moduan Mertxe Epeldek jarraittuko dau eta Istitutuko zuzendarixa Iñigo Larrañaga izango da, azken bi urtietan moduan.



Bestalde, goiko ikastetxia eraberritzeko lanak 2 hilabete pasatu aurretik hasteko esperantzia daukela adierazi zoskun Mertxe Epelde zuzendarixak.

EPA-ko matrikulazio epia zabalik hilabete honetan

2001-2002 kurtsua hastera doia "Centro de Educación Permanente de Adultos" dalakuan. Izena emon nahi daben danak hilabete honetan (irailian) izango dabe horretarako aukeria. Eskeintza , ofiziala eta dohainik izatiaz gain, euskeraz eta gazteleraz egitteko EPA-n alfabetatzetik ESOrarteko klasiak emoten dira, azken honetarako baldintza bakarra abenduaren 31rako hemezortzi urte betiak izatia dalarik. Matrikulaziño kopurua hazten juan da 1996an zentruak atiak zabaldu zittuanetik. Ikasliak adin guztietakuak dira, bataz-beste 50 urtekuak, baina ixa danak emakumezkuak. Badakizue, pixkat gehixago ikasi edo lagun barrixak egin nahi badittuzue, Baltegieta kaleko 18 zenbakira jo besterik ez daukazue, animo!!

Izate Etxeberria atxilotu zeben Malagan



Juan zan hilaren 27xan, Guardia Zibilak Izate Etxeberria Soraluzetarra (aspalditxotik Gasteizen bizi dana) atxilotu zeban Malagako Benalmadena herrixan bere mutil lagunarekin batera. Izate eta Eneko Balantzategi oporretan zeren Malagako hotel baten eta handik urttetzen ziharduela (13:00), Guardia Zibila azaldu eta atxilotuta eruan zittuen. Enekori, ETAren komando baten laguntzaile izatia leporatzen zotsen eta Izate, Enekorekin egoteagittik atxilotu zeben. 3 Egun inguru eduki zittuzten atxilotuta eta ondoren 29xan Izate eta 30ian Eneko kargurik barik laga zittuzten aske. Atxilotuta egon ziran egun horretan, "kolpe eta bestelako tratu txar gogorrak" jaso zittuztela eta bertatik "lur jota" urten zebela kontatu zotsen Izatek Soraluzeko lagunei.

Udaletxeko ordezkarixak Austriara

Herriko udaletxeko zenbait ordezkarik (Nere Isasti...) Austriara egingo dabe bidaia Gipuzkoako beste herri batzuetako ordezkarixekin batera, Debemen, Deba Barreneko Nekazarixen Elkartiari esker. Hola, Nekazaritzaren alorreko produkziñua eta ustiapena zer nolakuak diran ezagutu ahal izango dabe, bereziki esnegintzan eta honen transformaketan (yogurgintza eta gaztagintza), nekazal ustiapen ekologikuetan, likoregintzan…

Jose Soba, Jubilatuen Etxeko konserje berrixa



Abuztuaren batetik, Jose Soba da Jubilatuen Etxeko tabernako arduradun berrixa. Sukaldaritzan badauka esperientzia, eta hortaz eta beste zenbait kualitatez baliatuz, hainbat aldaketa egittia pentsatuta dauka. Eskeintza hobia egittia, kanpoko terrazia zabaltzia (datorren urtian), zine emanaldixak botatzia… ilusiño faltarik ez dauka, eta gainera oso gustora ei dago jentiaren erantzunarekin. Gainera David Leonardo mutil gaztia be laguntzaile izango dau. Zorte on !


HNOS. BENITO ANAIAK
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Txuritxu
gozotegia
Santana kalea, 22 A
Tfnoa 943 75 24 43

Soraluze obretan









Abuztuan eta irailian herrixa obraz gainezka izan dogu. Uda honetan ekin dira Amutxastegineko lantegixa botatzeko lanak. Lantegi hau 30eko hamarkadan jarri zan martxan eta kamioiendako automozio piezak egitten zittuzten bertan. Fabrika hau bota ostian, 44 etxebizitza egitteko proiektua dago eta Udalak ia onartuta dauka.

Ezoziko ermita ere obretan dago. Kasu honetan lanak oso aurreratuta daude, iada elizataria zutik dago, habe berri batzuk jarri dira eta atzealdeko horma bota dute.

Gasa sartzeko lanak be hor dihardue. Oindio Atxuri, Errekalde eta zubi nagusiko partia gelditzen da. Lan honek irailian bukatzia espero da, hola Gabolatz Garaia eta Loralde bakarrik egongo dira gasa sartzeko zain.

Polikiroldegiko lanak berriz be hasi dira martxan. Fase honetan kanpokaldia konpontzeko asmua dago eta urriaren amaiera alderako bukatzia espero dabe.

Obrak bukatzeko, irailaren amaiera aldera Sacia lantegia botatzeko lanak hasiko dira. Eraikin hau bota ostian, babes ofizialeko etxebizitza batzuk egitteko asmoa dago.

San Roke Txiki eguna...Donostian!

Abuztuaren 17xan, urtero moduan, San Roke Txiki eguna ospatu zan Soraluzen. Baina ez hemen bakarrik, kanpora bizitzera juandako soraluzetar askok, ohittura zahar hau ez galtzeko ahaleginian dihardue. Horren erakusgarri dogu Donostian bizi diran soraluzetarrek egindako ospakizuna.

Gipuzkuako hiriburuan bizi diran soraluzetarrek, urtiak zaroiezen egun hau festa giruan igarotzen, baina aurten, lehendabiziko aldiz, danak batera ospatzia erabaki dabe. Hori dala eta, Kursaaleko kubo txikixan bazkari bat antolatu zeben, punta-puntako sukaldari batek prestatuta, Martin Berasategik hain zuzen be. Bazkarixaren ostian, ospakizunekin jarraitzeko, Ramiro Larrañagak txistua jo eta bertaratu ziran danak abestu zeben, Agur Jaunak kantu ezagunarekin amaiera emonaz bazkarixari.

Bazkarira juan ziran 34lagunak, herrian egon ez arren, herrixan balere moduan ospatu zeben gure patroiaren eguna.

Mertzedarien eguna Zaharren Egoitzan



Iraillaren 21, 22 eta 23an Zaharren Egoitzan meza berezixak emon zittuzten, Karmelitarra den Rufinok emonak hain zuzen be. Astelehenian, hilak 23, egun berezixa izan zeben, Mertzedarien eguna, eta hau ospatzeko, goizeko hamaiketan Jokin herriko parrokuak meza nagusixa emon zeban bertan. Ondoren, lunch edar bat jan zeben, eta gero, ordubixetan, bazkari edarrago bat jan zeben, Belaustegi jatetxian preparatuta ekarri zana. Bertan izan ziran egoitzako langile, monja, abade eta juntako partaidiak beste askoren artian.


Ertzaintza Arranuan



Juan dan hilaren 5ian ertzainak sartu ziran Arranuan "pegatina baten bila" eta bideo kamara batekin barra eta kamareroa grabatu zittuzten. Batasunak Udalian salatu zeban egintza hori, probokaziotzat kalifikatuz. Honekin batera, bide polizialak ez dabela inongo konponbiderik ekarriko adierazi zeben.

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik!!
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
TABERNA GILA
Errabal kalea, 15 Tfnoa 943 75 18 34

Lonbide taberna
Pintxoak
Ardoak, kafeak eta likoreak
Errabal kalea, 9
Tfnoa 943 75 14 07



Hirukurutzeta ez da lehentasunezko aukeria izango Parke Eolikuen planian

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren aldizkari ofizialian honako hau diño Euskal Autonomi Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialaren zehaztasunen inguruan:

"Parke eolikoen instalazioak lehentasunez egingo dira I. taldeko kokalekuetan eta bakarbakarrik utziko da II. taldeko kokalekuetan egitea, egiaztatzen denean objetiboki zaila dela jasotako helburu energetikoak betetzea kokaleku horietan izan ezean".

I. taldiaz, lehentasunezko lekuen gainian ari diranian; Ordunte, Genekogorta, Oiz, Mandoegi, Elgea-Urkilla eta Badaia mendigainez diardue eta II. Taldiaz, ez lehentasunezko lekuen inguruan ari diranian; Irukurutzeta, Samiño-Izazpi, Gazume, Kolometa, Arkamo, Iturrietako mendixak eta Alda-Arlabako gurutziaz. Hortaz, Irukurutzeta bigarren mailako aukera moduan gelditzen da eta biharrezkua ez bada ez ei da bertan parke eolikorik jarriko.

Soraluzeko Udalaren eskaeria

Alkateak Josu Jon Imaz Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Kontseilariari zuzendutako idatzi baten, Irukurutzetan parke eolikorik ez jartzeko daren arrazoiak jakinarazten dotsaz. Gorde biharreko gune natural multzo oso garrantzitsua eta berezia dalako, mendigain horrek daukan balore historiko eta



kulturala haundixa dalako, Soraluzekoaz gain inguruko herrietako Udalak be Babestutako Biotoko izendatzeko eskaerak egin dittuztelako, galzorian daren 6 espezie bizi diralako bertan, bertako estazio megalitikuak Kulturgune Onuragarri izendatzeko prozedura zabalik dagualako, 66.999 bizilagunek egunero egunero izango lituzketelako bistan, txostenean agintzen dan moduan haize indar txikiagua bihar daben errotak jartzea bultzatu bihar dalako eta Euskal Autonomi Erkideguan "Silicon Valley" antzeko beste alternatiba mota batzuk be izan bihar dirala, hori danori kontuan hartuta, "Irukurutzetako instalazioa erabat baztertua izan dadila" eskatzen da.

Zapatu gabetan autobusak



Gipuzkoako Foru Aldundixak jakittera emon dabenez, urriaren 6ttik aurrera, zapatutik domekarako gabian autobus zerbitzuez gozatzeko aukeria izango dau nahi dabenak. Zerbitzuok, Eibar-Eskoriatza eta alderantzizko norantzakuak izango dira eta hola, bai Eibarren eta bai Eskoriatzan gauerdixan hasi eta goizeko seirak bittartian ordu t'erdiro urtengo dabe autobusak, hau da, alde batian zein bestian 00:00etan, 01:30etan, 03:00etan, 04:30etan eta 06:00etan urtengo dabe. Honenbestez, Soraluzen, Eibartik datorrena 10 minutu beranduago pasatuko da (00:10 / 01:40 / 03:10 / 04:40 / 06:10) eta Eibarrera doiana Eskoriatzatik urten eta 35 minutura pasatuko da (00:35 / 02:05 / 03:35 / 05:05 / 06:35). Hasiera baten, zerbitzu honek 5 hilabeteko iraupena izango dau, froga gisara, eta beronen helburu nagusixa, larunbat gabetan autuak etxian lagata, batez be gaztiak izaten dittuzten auto-istripuak sahiestia da. Elgoibar ez dabe autobusen ibilbidian sartu, baina tira....


Arianne Unamuno, Eguzkiñe Aldazabal, Egoitz Unamuno, Enara Agirre.

Akelarre tabernia itxi da

Asko izan dira azken urtietan herrixan itxi dittuen tabernak; Atxolin, Edurtza, Txergori, Osasuna...

Jaixetatik aurrera, beste taberna bat itxitta dago; Akelarre. Baina danak ez dira itxierak izango. Gaztelupe taberna urriaren azkenaldera berriz zabaltzia espero dabe, egitten diharduen berritze lanak amittu bezain laster. Berritze lan honekin, Gaztelupe tabernaren 3.solairuan, Gaztelupeko Hotsak disketxiaren ofizinak egingo dittuzte eta eraikinaren estruktura guztia indartuko dabe. Beste taberna bat be zabaltzeko bidian da; Santa Anako Edurtza. Han be, insonorizaziño lanak egin ostian zabalduko dittuzte berriz tabernako atiak.

Batasunako zinegotzi aldaketa




Irailian hasi dan urte politiko berrixak aldaketak ekarri dittu Batasunako zinegotzi taldian. Regina Maiztegi, oinarte zinegotzi izan danaren partez, Larraitz Lakuestak hartuko dau udaleko zinegotzi kargua. Reginak, Izartu programako teknikari plaza lortu ostian hartu bihar izan dau erabaki hau, legiak debekatu egitten dabelako, aldi berian Udaleko langile eta zinegotzi izateko aukeria. Bestalde, Iñaki Saezen heriotza dala eta, beste pertsona batek hartu biharko dau, hutsik geratu dan zinegotzi kargua, seguruaski Bittor Treviñok.

Ventanas
Olarri
* Aroztegia, PVCa, Aluminioa
* Terraza estaldurak, Balkoiak
* Leihoak, manparak
Mendiola Poligonoa 12
20590 Soraluze 73 Posta Kutxatila



Javier Alonso Zelaieta
Hortz klinika



Mediku estomatologoa
434 zenb. kol.
Atxuri, 1 - 1. eskuma
Tfnoa 943 75 16 13

Patxi Maiztegi

"Munduko gauzarik inportantiena bakia"

Atzian laga dogu abuztua,hondartzok,oporrok eta bestelakuok eta hileroko eginkuzunari ekin dotsagu, kalera urten bueltatxo bat emon eta bost minutu pasau gurekin berba egin nahi daben plazentziatarrakin.Udazkenaren atarixan garela egunero egin eta egittia gustatzen jakon zeozer egitten topau dogu Patxi, pasiuan hara eta hona gustora gustora.Berriketaldixa motz xamar geratu jaku, juan biharra zeukan baiña hemen dakazue bittartian esan dabena.

Izen abizenak eta adina

Patxi Maiztegi naiz eta 75 urte dakaraz

Udazkena

Oin guretako danak dira antzerakuak, tira neguko egualdi hotzak eta txarrak ez dot ba nik esango baiña bestela antzerakuak...lehen bai perretxikotan ibiltzen nitzan mendixan baina oin lauan pasiatzia nahixao.

Txikittako akordu bat

Errekan igarixan egitten giñuan eta ikusizu gaur, urdina dao eta zein sartu horra.Berau izoztuta ikustia be harrigarrixa eta gauza edarra izan zan.

Zaletasunak

Pasiuan ibiltzia

Zoriontsu izateko klabia

Arazorik ez eukitzia eta ahalik eta gustoren bizi izatia

Egun baterako planik onena

Ba goizian jaiki, pasio edarra emon eta hamabixak, ordubatak aldera zuri batzuk eran,bazkalostian siestia egin eta berriro hiru-lau kilometroko pasiua emon ta gero afaldu ta ohera.

Lagun arteko afarixak

Horrek lantzian behin, ez dauke guretako bentajarik

Afalosterako kantua


Boga boga

Bazkari edar bat

Berakatz sopia, legatz prejidua eta frutia.Ardau basotxo bat jo ta honekin bapo dao gizona!!

Eskatu hiru desio

Inungo minik ez eukitzia eta holaxe jarraitzia luzaruan



Patxi Maiztegi

HABANERAN

Hiru desio eskeini
ta bi bakarrik hautatu,
Min eza ta osasuna
batian leizken eskatu.
"Ordua, berandu nabil !"
andriagaittik kezkatu.
Gizon puntuala danik
ezin gentzake ukatu.
Neska gaztia onduan,
ez jako asko gustatu.
"Nik bakian bizi nahi dot,
ondo jan da pasiatu !"
Ibaira jausiko balitz
ai han be zeinek hondatu,
Aspaldittik daki Patxik
Bizitzan zela bainatu.

Etxebarri

"Inungo minik ez eukitzia eta holaxe jarraitzia luzaruan, horixe nahi neuke"

Munduko gauzarik inportantiena

Bakia

Itxoin beste pare bat galdera dakaraz eitteko...

Juan biharra daukat, andriakin geratuta nao ta

-Argazkixa etaratzeko denboria emon dosku behintzat! Honenbestez neuk gaineratu biharko dot zeozertxo.Gizon puntuala,esanekua eta zuzena dala ez dao dudarik, ba hauxe dozue Patxi...

Gururu

etxebarri® etxehun
BARRA KARGATZAILE AUTOMATIKOAK
MAKINA BEREZIAK
ETXEHUN, S.A.L.
Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa **943 75 18 91**
Faxa **943 75 24 58**
E - maila: **etxehun@teleline.es**
etxehun@euskaltel.net
20590 SORALUZE
Gipuzkoa

FER. S.A.
Industriak
Eskulanetarako tresnak
Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Soraluzek bere elkartasuna erakutsi die Asier eta Iñakiren senitartekoei

Lurdes Txurruka Soraluzetarra bisitatzera zijoazela, irailaren 8an galdu zuten bizia Asier Heriz eta Iñaki Saezek, eta hauekin batera zijoan Irantzu Benitok (Iñakiren andreak) zauri larriak jasan zituen. Berria jakin zenetik, hainbat eta hainbat ekimen eta adierazpenek, berriz ere Espainiar Estatuak eta Frantziar Estatuek diseinatutako euskal presoen sakabanaketa metodoak dakartzan ondorio latzak salatu dituzte.

Berri mingarria

Larunbat goizean goiz atera ziren Asier, Iñaki eta Irantzu Soraluzetik Brievako (Ávila) espetxean preso dagoen Lurdes Txurruka Soraluzetarra bisitatzeko asmotan. Baina ez zuten euren helburua betetzerik izan. Avilako kapitaletik 40 bat kilometrotara dagoen Adanero herrian, goizeko bederatziak laurden gutxi inguruan bidegurutze baten kamioi batek aurrean eraman zuen herritarrak zijoazen autoa. Istripuaren ondorioz, Asier eta Iñaki hilik suertatu ziren. Irantzu zaurituta, Nuestra Señora de Sonsoleko Hospitalera eraman zuten. Irantzuk saihetsak eta ukondoa apurtuta zituen eta arratsaldean ebakuntza egin zioten.

Berria jakin orduko senitartekoak Avila aldera jo zuten Irantzuri lagun egin eta gorpuak Euskal Herriratzeko paperak betetzera.

Bitartean herrian, pankarta eta dolu xingolak (krespoiak) zeramatzaten ikurriñak jarri ziren, berria jakin bezain laster. Kalean ez zen beste berririk entzuten eta ezagunen, lagunen eta senitartekoen negar aurpegiek, gertatutakoaren gogortasuna erakusten zuten etengabe. Arratsalde horretan bertan, 300 bat lagunek osatuta, manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar "Asier eta Iñaki dispertsioak erahilak" lemapean.

Gaueko 21:15 aldean abiatu ziren senitartekoak gorpuekin Euskal Herrirantz. Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Bergaran harrera egin ostean, auto ilada luze baten artean heldu ziren gorpuak Soraluzera, 1:00ak inguruan. Herrian, Euskal Herriko eta euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko ikurriñek eta hauen inguruan zain zegoen jende multzo ugari batek (300 bat pertsona), Gilako zubian zehar pasabide bat egin zieten senitarteko eta lagunek Udaletxeraino eraman zituzten hilkutxei. Mikel Laboaren abestiak eta negar hotsak bakarrik entzuten zirela, hil kapera Udaleko pleno aretoan jarri zuten. Gauean eta hurrengo goiz guztian zehar, hainbat eta hainbat herritarrek dolumiñak eman zizkieten uneoro bertan izan ziren senitartekoei.

Ekimen ugari

Omenaldia eta manifestazioa

Asier eta Iñakiren heriotzak salatu eta "merezitako agurra" emateko, ondorengo egunetan ekimen ugari izan ziren herrian.


Igandean, heriotza gertatu eta hurrengo egunean, Asier eta Iñakiri eskeinitako omenaldi bat egin zen Plaza Berrian. Ikurriña eta dantzarien arku artetik eta txalaparta hotsez jantzita, Asier eta Iñakiren hilkutxak tablatu baten gainean jarri zituzten, atzean euren argazkiak margoturik zeuzkan pankarta

Arandela pulituen fabrika
Standart Tipoa, Din eta Zeta
Arauak, eredu edo planoen
araberako Estanpazio lanak.

Estanpaciones LAGA s.a.

Industroaldea
telf: 943752350/1985
telefax: 943751702

42 postakutxa
20590 Soraluze



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

erraldoi bat zutela. Txistulariek eta bi dantzarik agurra egin ostean, Asier eta Iñakiren lagunek, Batasunako kideek eta Senideak-Gureak elkarteko ordezkariak hitz batzuk esan zituzten. Tartean hildakoei eskeinitako hiru bertso kantatu zituzten eta dantzariek, ikurrin dantza egin zuten. Jendez gainezka zeuden plaza eta inguruak eta omenaldia oso hunkigarria izan zen. Omenaldia amaitu bezain laster, bildutakoek (2.000 pertsona inguruk) "Asier eta Iñaki dispertsioak erahilak" lemapean herriko kaleak zeharkatu zituzten dispertsioaren aurkako ohiuak jaurtiz.

Greba eguna eta mozioa

Astelenean Greba orokorra egin zen herrian eta Senideaken mozioa aurkeztu zen plenoa ere bai. Grebak, jarraipen handi samarra izan zuen eta denda eta komertzioak ia osotasunean eta enpresak %50 inguruan itxita izan ziren.

Udalak ezohiko bilkura egin zuen eguerdiko 13:00ean eta Senideak-Gureak elkarteak aurkeztutako mozioa onartu zuten aho batez., EAJko bost zinegotziek eta EAko eta Batasunako banaren aldeko botuekin. PPko eta PSE-Eeko ordezkariak ez ziren bilkurara agertu.

Hileta elizkizunak

Hileta elizkizunetan ehundaka eta ehundaka pertsona. Elizako ate nagusirako sarreran, "Euskal Presoak Etxera" zioten zapiak eta xingola beltza zeramaten ikurriñek osatutako pasabidea egin zieten senitartekoei. Bitartean ehundaka pertsonek kanpoan itxaron behar izan zuten elizkizunak amaitu arte.

Elizkizunean bost abade inguru izan ziren. Meza emateko ardura izan zuen abadeak, kristauentzat egarri denari edaten eta gose denari jaten emateko obligazioa duen moduan, gaixoak eta presoak bisitatzea ere betebehar bat dela adierazi zuen. Honekin batera, Donostiako gotzaia den Juan Maria Uriartek eta Jose Maria Setien gotzai izandakoak, presoen eskubideak errespeta daitezela aldarrikatuz bidalitako mezuak gogoratu zituen.



Igandean omenaldiaren ostean egindako manifestazio jendetsuaren irudia.

Manifestazio jendetsua Bilbon

Mobilizazio nagusia larunbatean egin zen Bilbon, Aita Donostia Plazatik. Amnistiaren Aldeko Batzordeek, LABek, ELAk , Batasunak, EAk eta Elkarrik bat egin zuten.

Soraluzeko hainbat taldek ere atxikimendua eman zioten manifestazioari eta Gaztetxetik eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetatik jarritako autobus banatan joan ziren Bilbora herritarrak. Manifestazioan milaka pertsona batu ziren eta arrakastasua izan zen benetan.

Senitarteko eta lagunak lur jota

Berria jakin orduko, eenitarteko eta lagunak lur jota gelditu ziren, gertatu zena "sinistu ezinik". Lurdes Txurruka, Asier eta Iñakik bisitatu asmo zuten laguna, oso momentu txarrak pasatzen ari omen da Avilako espetxean.

Lurdes 1994 an atxilotu zuen ertzaintzak, Bizkaian, Loiun egindako polizi operazioan. Operazioan Anjel Irazabalbeitia "Txorta" bere mutil laguna hil zuten eta bera atxilotu beste lagun batzuekin batera. Duela hilabete Lurdesen ama hil eta orain bi lagun. Bere ahizpa Josefinak Egunkariari eskeinitako adierazpenetan, Lurdesendako heritza hauek "maillukada" bat izan direla nabarmendu zuen. " Brievako kartzelan izan ginen igande goizean eta lur jota zegoen, negarrez eta bere kulpa zela esanez. Ez da horrela baina hori da norberari geratzen zaion sentimentua" gaineratu zuen. Sakabanaketari amaiera emateko "denak hori zer den pentsatzen eta irtenbideak bilatzen has daitezela" eskatu zuen.

Egoitz Unamuno
GARA*k utzitako argazkiak*

ONARTUTAKO MOZIOA

1.Soraluzeko Udalak, bere dolumin sentikorrena adierazi nahi die, Iñaki Saez Udal honetako zinegotzi eta Asier Heriz herritarraren senitarteko eta lagunei. Era berean, bere babesa bidali nahi dio, larri zaurituta dagoen Irantzu Benitori.

2.Espainiar eta frantziar estatuek diseinaturiko dispertsioaren ondorioz hil diren Iñaki Saez Udal honetako zinegotzia eta Asier Herizen omenez, hiru eguneko dolua deitzea erabaki du Udal honek. Egun hauetan udaletxeko ikurrina, masta erdian eta krespoi beltzarekin jarriko da.

3. Iñaki eta Asierren heriotzaren ondorioz sortu diren leku aldaketaren gastu ekonomikoak Udalak bere gain hartzea.

4. Udal honek inoiz baino ozenago berretsi nahi du euskal presoen eskubideen aldeko eta dispertsioaren aurkako mezua. Euskal presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea gauzatzeko eta frantziar eta espainiar estatuei Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzeko exijituz.

5.Egoera honen ondorioz, Lurdes Txurruka sufritzen ari den une latz honetan, batzorde bat eratuko da Udal honen izenean, Brievako espetxera joan eta Lurdesi elkartasuna adierazteko.



6.Udal honek "Giza eskubideen alde. Euskal Presoak Euskal Herrira" lelopean isileko konzentrazio baterako dei egiten dio Soraluzeko herriari. Kunzentrazioa, Herriko Plazan egingo da, ostiralean, irailaren 14an arratsaldeko 8:00etatik 8:15era.

7.Erabaki honen berri Soraluzeko herriari eta komunikabideei ematea.

PASCUAL CHURRUCA, s.a.
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

ELIZpE

hortz klinika
Elizburu, 3 behea
943752567
20590 Soraluze

Soraluzeko SENIDEAK Elkartia

"Oso oso golpe gogorra izan da"

Senideak Gureak Elkartea.Euskal preso politikoen senitarteko eta lagunak batzen dituen taldea da. Soraluzeko Senideak Elkartekoengana jo dugu, Iñakiren eta Asierren heriotzaz eta sakabanaketaz berba egiteko. Golpe gogorra izan da Senideak elkartekoendako, Iñaki eta Asierren heriotza "baina aurrera egin biharra daukagu".

"Sakabanaketia gogortu egin da azkenengo 2 urtietan"

"Sabanaketia zigor gehittu bat da, guztiz ilegala dana. Presuei eta euren senittartekueri txantaje politiko eta ideologiko bat egitteko jarri zeben martxan". Senideak milaka eta milaka kilometro egin behar izaten dituzte astero, bi estatuetako espetxeetan preso dauden senideak bisitatzeko. Pedro Joseren gurasoek esaterako, gaixotasun eta adina direla eta, ia 2 urte daramatzate euren semea ikusi gabe, "zahartu be egin gaittuk eta osasunik be etxakau guk holako biajerik eitxeko. Tristia dok e, hola egon biharra gure edadian ?".

Sakabanaketak, hasi zenetik gaur arte izan duen bilakeraz galdetuta, "azken bi urtietan asko gogortu da"la esaten digute, Lizarra Garazi akordioa hautsi zenetik. "Len preso politikuak batera egoten ziran baina oiñ kartzela barruan be banatu egin dittuzte eta ezin dabe elkar ikusi". Ia 600 preso politiko daude Espainiar eta Frantziar estatuetako espetxeetan banatuta. Langraitzen zeuden azken 6 preso politikoak joan zen astean eraman zituzten Langraitzetik kanpoko espetxeetara eta dagoeneko ez dago euskal preso politikorik bertan.

Oraindela urte batzuk,presoak, elkarrekin egoten omen ziren eta horrek, senide askori, autobusa hartu eta bidaiak batera egiteko aukera eskeintzen zien. Orain, "bakoitzak bere autuan egin bihar izaten dittugu bidai danak eta astero astero arriskuan ibili bihar izaten dogu, ze kilometro asko dia e! ". "Etxekuak beti bildurrez egoten dira ia zeozer gertau jakun". Dagoeneko 11 dira presoak bisitatzera zoazela hildako senideak eta 12 zaurituak.

"Gure eskubidiak bigarren mailakuak dira"

Senideak taldea, presoen sakabanaketak sortzen duen sufrimendu eta arazo larriak gizarteak ikusi ditzan ahalegina egiten saitzen dira, baina "komunikabide askok ez dabe ezer azaltzen hontaz edo oso oso motz ipintzen dabe eta beste gairen batekin lotuta". Lizarra Garazi akordioa izan zen garaian presoen eztabaida gizarteratzea lortu zela diote, "akordiua hautsi zanetik asko gogortu da egoeria, freno gogorra izan da konponbiderako".



Josefina Txurruka, Jose Etxeberria eta Maite Etxeberria Senideak elkartekoak.

Euskal Erakundeen jarrerarekin "zihero dezepzionatuta" daude. "Euskal gizartiaren gehiengo haundi batek, Euskal Presuak Euskal Herrixan nahi dittuala esan dau, Gasteizko parlamentuak be hala erabaki zeban. Ibarretxek diño beti, euskaldunen erabakixak eta giza eskubidiak errespetatu bihar dirala baina ez dau ezer egitten hori betetzeko. Elkarrizketa nahi dabela be esaten dau baina ez dau Senidiekin biltzerik nahi. Zer egin bihar dogu guk?". Iñaki eta Asier hil zirenean ere, Josu Jon Imazen "berba gutxi batzuez gain ez PNVek eta ez Ibarretxek, ez zeben ezer esan. Gure eskubidiak bigarren mailakuak dira itxuria".

"Golpe gogorra izan da, oso gogorra"

"Asier eta Iñaki juan ziranian eta Lurdesek deittu zebanian eguardixan ez zirala heldu, segiduan pentzau neban zeoze gogorra gertau zala eta halaxe izan zan" zioen Josefina Txurruka. "Barrixa emoteko Lurdesi deittu notsanian, telefonua laga eta negarrez hasi zan, sekula ez dot hain gaizki ikusi". Pedro Josek ere asko sufritu omen du eta gainera bestela ere oso egoera txarrean omen dago. "Pedro Jose daguan zeldia, kukaratxaz beteta dao ta kukaratxa batzuk harrapau zinta baten eta juezari bialdu dotsaz oindala gutxi. Hortik etara kontuak !".

Herriak erakutsi dien maitasunarekin oso gustora daude eta asko eskertzen dute. "Jentiak asko lagundu dosku, moziñua be onartu zan udaletxian…hori bai min asko emon zoskun ostiraleko konzentraziñuan eta Bilboko manifestaziñuan alderdi politiko batzuetako jentia ez azaltziak".

"Holako bi topatzia zaila izango da, guretzako konpromisuaren eta elkartasunaren ikur izango dira Asier eta Iñaki. Euren senitartekueri be, batez be Lurdesi eta Irantzuri, lehenbailen mejoratzia opa dotsegu. Presuak be esaten doskue ez juateko, baina guk juaten eta euren eskubidian alde egitten jarraittuko dogu, maitte dittugulako".


ELKOARTI
VIDEOCLUB SORALUZE
Videomatic
Gabolatz, 3-behea
Telefonoa: 943 75 24 87

Telefonoa 75 24 09
ARRANO TABERNIA
" Giro euskalduna eta sanua "

Pelota

Aritz Laskurain Venezuelan

Aritz Laskurain Venezuelara juana da Euskadiko Selekziñuaren eskutik. Irailaren 16-ttik 29-rarte Venezuelan izango da. Venezuelako Pilota Federakuntzak Euskadikuari bi pelotari eskatu dotsaz bi astetan zihar bertako pelotarixekin entrenatu daittezen eta joku maila hobetzen lagundu diezaieten. Ekintza hau Euskadiko eta Paramerikako Federakuntzak pelota Ameriketan sustatzeko adostutako hitzarmenaren barruan sartzen da. Aukeratuak Euskadiko Selekzioko partaide diran Aritz eta Andoni Eguzkitza Zornotzarra izan dira.



Udan be, jo ta sua pelotan !

Abuztua jai eta deskantzurako garaixa izan dogu gehixenok, pelotarixak ostera ez dabe deskantzu gehixegirik izan, herri askotako pelotalekuetan jokatu bihar izan dabe jaixetako partidu nahiz txapelketetan.

Udan zihar garrantzi handiko txapelketak antolatzen dira eta Soraluzetar pilotarixak emaitza onak lortu dittuzte hainbat txapelketetan. Iñaki Jauregik Burlatako txapelketaren finala abuztuaren 15 jokatu zeben herriarteko txapelketan Baztan ordezkatu zeban Escudero Eratsundarraren kontra eta 22 eta 14-ko emaitzaz txapela irabaztia lortu zeben. Aritz Laskurainek be lortu dau uda honetan final batera iristia, Altsasun izan zan baina irailak 15-ian jokatutako finalian Mundiñano eta Aritzek ezin izan zeben Martinez de Irujo eta Okiñena bikote gogorra menperatu eta 22 eta 15-eko emaitzaz galdu zeben.

Finalaren atarixan be geldittu dira hainbat txapelketetan, Lezon esaterako Iñaki eta Aritz ligilako buru sailkatu ostian finalerdietan kanporatuak izan ziran. Iñakik Azpiroz naparrarekin batera 22 eta 13 galdu zeben Erroizenea eta Bengoetxea-ren kontra. Aritzek Larrabetzuko Amarika lagun zuela Agesta Okiñena bikote gogorraren aurka galdu zeban.

Normalian oporretan pasatzen dogun hil hau (Pil-Pileanen behintzat) pelotarixak jokatzen pasatu dabe eta ikusten danez Herriarteko Txapelketan lortutako maila onak zutik dirau, ia urte guztian zihar hola irauten daben.

Xuban Catalan
Egoitz Unamuno

Futbola

Hasi dira burukomin eta poztasunak "foballaren" jarraitzailiendako

Aspaldiko urtietan mundu erdixa dantzan jarri daben kirola aurtengo denboraldi berrixari hasiera emotera doia. Soraluzeko futbol taldeak aldaketa interesgarrixak egin dittu aurtengo denboraldixari begira. Aipagarrixenak regional eta kadete mailan izandakuak dia: Bi maila honetako entrenatzaile aldaketia egon da, Iñigo Egurenek Regional mailako jokalarixak hartuko dittu bere kargu eta Zigor Alberdik kadetiak. Ia aldaketa honek emaitza onak ahalbideratzen dittuzten eta denboraldi politt bat ikusteko aukera izaten dogun.

Bestalde, asteburu honetan jokatutako partiduetako baten nahaspila haundi xamarra sortu da. Jubenilak Ikasberri taldiaren aurka jokatutako partiduan Soraluzeko 5 jokalari bota zittuan kalera eta azkenian partidua bertan behera laga bihar izan zan. Penagarrixa benetan Ezozin emon zan espektakulua.

EMAITZAK

Erregionala
SORALUZE 0 Tolosaldea 4

Jubenilak
SORALUZE 1 Ikasberri 2

Kadeteak
SORALUZE 6 BERGARA 0

ITUR iturgintza
Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak
Santa Ana, 20 Behea
Tlfonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tlfonoa: 639 17 96 96

Limpiezas industiales
Limpiezas
Trejo, S.L.
Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

Txirrindularitza

Ander Usandizagak Irabazi zeban LV. Soraluze Sari Nagusixa

Urtero moduan aurten be, Soraluzeko Kirol Elkarteko Txirrindularitza Sailak antolatuta Soraluzeko Sari Nagusixa jokatu zan abuztuaren 14an. 92 Kilometroko ibilbidia egin bihar izan zeben parte hartu zeben 100 txirrindulari baino gehixagok, tartian Epeleko eta Azkarateko gainak iguaz. Herrixan egitten ziharduen lanak zirala eta aurten San Andresen biharrian, Ezozin amaittu zan probia. Azkenian, Land Mobel taldeko Ander Usandizaga txirrindulari Gipuzkuarra izan zan helmugara lehenengo heldu zan txrrindularixa 2:28:21eko denboriakin. Bigarren Gruesa etxeko Iker Leonet geldittu zan eta hirugarren Muebles Ordizia taldeko Jesus Manuel Txamorro . Mendiko sarixa Land Mobel etxeko Ander Usandizagak lortu zeban eta taldien sailkapenian Muebles Ordizia etxia geldittu zan lehenengo postuan.



Ander Usandizaga Ezozin, merezittako sarixa eskuetan dabela.

Herrittar askoren laguntza bihar izan zan aurten be proba hau aurrera etaratzeko eta antolakuntzak eskerrak emon nahi dotsez daneri, horren jator eta borondatetsu portatu diralako. Eskerrak antolakuntzari boluntarixuen partez be. Eskerrikasko danori !

Judua

Kristina Hernandez "Gerriko beltza jaztia da nere helburua"

Kristina Soraluzeko Ukaldi Judo Taldian dabil oraindala 8-9 urtetik, oso txikittatik 8 urte zittuenetik. Bere lehengusina eta lagun batek izena emon ei zeben eta orduan sartu ei zan kirol honetan. Astian bittan entrenatzen dau Soraluzeko bere taldekidiekin batera eta batzuetan Eibarrera eta kanpora juaten da entrenamentu gogorraguak egittera.

Gerriko Beltza

Juduan gerrikuak adierazten dau ze mailakua dan bat eta Kristinak gerriko marroia dauka oindio. Baina aurten "gerriko beltza jaztia da helburua" beretzat, gerriko hau lortzeko Kantabriara juango ei da urtia amaittu aurretik.



Txapelketak

Kristinak 5. Postua etara zeban azkenengo Espainiako Judo Txapelketa. Gustora dago postu horrekin baina datorren Udaberrixan jokatu dan Espainiako Txapelketan marka hobia egittia da bere helburua.

Urtian zihar txapelketa asko jokatzen dittu Kristinak; " Gipuzkuakua, Euskadikua hemen eta kanpuan, Portugal eta Andorrako txapelketa batzutan bebai. Portugalko txapelketa bat irabazi egin neban gainera".

Aurrera begira


Aurrera begira juduan buru belarri jarraitzeko asmua dauka, "entrenamentuetara kale egin barik". "Aurrerago judoko irakasle izatia" gustatuko ei litzaixoke, baina aurrerago. Orainartian ez bezala, hemendik aurrera Kristinaren nondik norakuak gertuagotik jarraittuko dittugu eta bide batez, juduaz pixkat gehiago ikasiko dogu berarekin.

ZORTE ON KRISTINA !

Egoitz Unamuno eta Xuban Catalan



Maider Lopez
Podologoa
65. kolejiatu zenbakia
Arragueta kalea,
2 bis B, behea C
20600 EIBAR
Tlfnoa: 943 82 04 88



Pinturas
ION MURGIZU
Empapelados
Pintura en general
y Estucos
Telef. 943 75 13 24
Avda Ezozia 24 2 behea
20590 SORALUZE

“Armeros Vascos”

Ramiro Larrañagaren azken liburua

Ramiro Larrañaga Soraluzetar idazle ezagunak, armagintzaren inguruko beste liburu bat kaleratu dau hil honetan bertan. Liburuak “ARMEROS VASCOS Repaso Historico –Raíces y Desarrollo “ izenburua daroia. Bertan; Eibar, Soraluze, Elgeta, Elgoibar, Deba, Arrasate, Ermua, Elorrixo, Durango, Bergara, Tolosa eta Markiña barne dittuala, “Armagintzaren Haran” izendatzen daben eremu horretan XVI. mendetik hona bizibide nagusixa izan dan armagintzaren garapenaren barri emoten dau.

Aurretik idatzi dittuan liburuekin moduan, irakurtzen hasi orduko konturatzen da bat, maittasun haundiz idatzittako liburu bat daukala eskuartian eta holako liburuak beti irakurtzen dira gustorago.

Donostiako Ametzagaina auzuan bizi da Ramiro, kapritxora jarrittako pisu eder baten, bere bigarren andriarekin. Bi kale harutzago daukan garajian gordetzen dittu bere liburu eta damaskinatuak egitteko erabiltzen zittuan hamaika herramintta. Ramiroren onduan historia eta lasaittasun usaiña hartzen da eta emoten dau denporia geldittu egin dala.



Ramiro Larrañaga bere etxeko idaz mahaixan.

Deba Arroko Armagintza

Ramiroren ustetan, “ezaugarri ezberdinak dituzten hiru garai daude, Deba Arroko armagintzaren antolaketaren funtzionamentuan definitu daitezkeenak, produktuen pilatze eta bidalketa lekuei dagokienez, multzo hau osatzen zuten gainontzeko herriekin diren zenbait berezitasun alde batera utzita. Ondorengoak izan zittezkieen: “pregremiala” Elgoibarren, “gremiala” Soraluzen” eta posgremiala, industri garapen zabal eta ugari batekin, Eibarren.”

Jatorrixa “Placencia de Soraluze”n

“Gremioen garaiak Plazentzian izan zuen jatorria, lehenago Plazencia de Soraluze izendatzen zen herrian, 1573.urtean” Plaentxiako armaginak euren produkziñua Felipe II enari eskeini ei zotsen, herrixarendako bizibide seguruago bat lortzeko asmuarekin, dudarik barik. Poliki poliki inguruko herrixak, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Ermua eta abar, antolaketa modu honekin bat egin zeben. Lan antolaketa honek, koperatibismuaren antzera funtzionatzen ei zeban. Artisau tailer txikiak, bakoitza bere buruaren jabe baina hitzemandako eginbehar batzuengatik bat eginda, kanpotik zetozen eskaerak bakoitzaren produkzio ahalmenaren arabera banatzen zittuzten. Hola izan zan 1860. Urte inguruan gremixuen garaixa amaittu zanerarte.

“Gure izaeria zelakua dan erakusten dau historixiak, hargatik ezagutu bihar genduke, zein garan jakitzeko”

Gure iragana ezagutu

Ramirorekin berbetan genihardula, historixan aurrera eta atzera bagenbiltza moduan sentitzen genduan geure burua. Harrittuta entzun zotsaguzen mende honetako, aurreko mendietako, Soraluzeko eta Soraluzeko ez diran mila historio eta kontu.

Herriko kontuak kontatzen ziharduan ehinian konturatzen da bat zeinen gutxi dakigun geure herrixaren historixiaren inguruan eta zeinen ahalegin gutxi egitten dogun jakitzen be. “Zertarako jakin kontu horrek, kontu zarrak dira eta ?”, izaten da lehenengo galderia askorendako historiaren balixuaren aurrian. Ramirorekin egonda argixago antzematen da, gure iragana ezagutziak oraina hobeto ulertzeko bidia emoten dabela. Orduan ikusten da garbixago etorkizunian jarraittu biharreko bidia zein dan. Zoritxarrez herrixan egin diran astakerixa eta egin ez diran gauza eder asko be ikusten dira eta hori mingarrixa da kontatzen dabenandako eta entzuten dabenandako be.

Azkenengo liburua


Bere esanetan, egin daben eta egingo daben azkenengo liburua ei da hau, “aspertuta najaok indixuan moduan ibilten” esan zoskun. Ziur gare jarraittuko dabela irakurtzen eta idazten eta oindio be osatuko dabela beste liburu bat osatzeko beste kontu.

Berriz be eskerrikasko Ramiro, hain gutxitan gogoratzen dogun gure herriko eta inguruko historixiaren barri emotiagaittik. Plazer haundi bat izan da zurekin elkarrizketa hau egittia. Eskerrikasko bihotz bihotzez eta segi holaxe urte askuan !

Egoitz Unamuno

Hizkuntza Minorizatuen Eguna
Soraluzen

Europar Batasunak Hizkuntza Minoritarixuen Egun moduan izendatuta daukan irailaren 26xan, Euskalgintzak (Euskal Herrian Euskaraz, AEK eta **Pil Pilean**), Ikastetxiak, Gaztetxiak, Bertso Eskoliak eta Ludotekiak, Udaleko Euskara Batzordiaren laguntzarekin, ekitaldixo bat antolatu zeben arratsalde horretan. Ekitaldixan, neska mutikuak txapa-okuma zati batzuetan, euren marrazkixak



margotu zittuzten, bertso eskolakuak bertso batzuk kantatu eta Gaztetxeko artistak malabarrekin artistakerixa batzuk egin. Honekin danakin, "Euskara hizkuntza gutxitu bat dala gogorarazi eta egoera hori aldatzeko bidian jarri bihar da"la adierazi nahi izan zeben.

SORALUZEKO II. BERTSO PAPER LEHIAKETAKO OINARRIAK

1- Euskal Herriko edozein bertso paper egilek har dezake parte txapelketa honetan.

2- Maila hauek bereiztuko dira:
A maila: 16 urtetik beherakoak.
B maila: 16 urtetik beherakoak.

3- Egin beharreko lana ondorengoa da:
A mailakoek: 4 bertso gutxienez eta 6 gehienez.
B mailakoek: 8 bertso gutxienez eta 12 gehienez.

4- Gaia librea izango da.

5- Lanak idazmakinaz eta euskaraz idatziak eta tarte bikoitzez antolatuak izan beharko dute. Lanaren bi kopia bideratu beharko dira.

6- Lanari erantsitako kartazalaren gainean, bertsoaren izenburuak eta egilearen goitizenak azaldu beharko dute eta barruan egilearen datuak: izenabizenak, helbidea, telefono zenbakia, bizi tokiaren izena…
7- NORA BIDALI :

SORALUZEKO UDALA
Santa Ana 1
20590 SORALUZE

8- Aurkezteko epea:
Lanak aurkezteko epea: Lanak aurkezteko epea, irailaren 24an hasi eta urriaren 19rarte luzatuko da.

1. Sariak era honetan banatuko dira:
A. Mailan
1. Saria: 10.000 eta afaria
2. Saria: 7.000 eta afaria
Saria Herriko Lehenen goari: 5.000 eta afaria.

B. Mailan
2. Saria: 30.000 eta afaria
3. Saria: 20.000 eta afaria
Saria Herriko Lehenengoari: 15.000 eta afaria

9- Partaide bakoitzak sari bakarra jaso dezake. Epamahaikoek hala eritzi ezkero sariren bat banatu gabe gelditu liteke.

10- Epaimahaikideak, Arantzazu Loidi bertsolari ohia eta Soraluzeko euskara teknikaria izango dira.

11- Saritutako bertso sorten berri, urriaren 23an emango da komunikabideen bitartez eta baita pertsonalki ere.

12- Sari banaketa, urriaren 26an (Ostirala) gaueko 21:30etan Soraluzeko jatetxe batean egingo den bertso afari batean. Saritutek euren lanak abestuko dituzte bertan.


13- Txapelketan parte hartzeak, aipatutako oinarri hauek onartzera behartzen du.

ANTOLATZAILIA:

SORALUZEKO
EUSKARAREN AHOLKU
BATZORDEA
(AEK, Pil Pilean Euskara Elkartea, Soraluzeko Udala, EHE, Ibilixan Ibilixan Bertso Eskola, Soraluze BHI, Plaentxi HI.)

Eta literaturaz?

Hil honetan zozketan?



INDIA HARRIGARRIA
Egilea:
Gotzon Garate
Bilduma:
Literatura 213
Orriak: 232
Salneurria:
2200 pta
Data:
2001eko iraila

Egileaz bi hitz

"Lurralde miresgarririk, amesgarririk ikusi nahi baduzu, zoaz Indiara, esaten digu egileak liburuaren hasieran. India sagaratua, India misteriotsua, fakirren, Budaren, behien, kasten lurraldea, zeruaren ederra eta infernuaren latza elkartzen dituen herria; mendebaldeko gure zibilizazio praktiko eta moderno honen guztiz bestelakoa.

Hindi hizkuntza ikasteko asmoz joan zen Gotzon Garate Indiara: Ahmedabad,Ranchi, Kalkuta, Bonbai, New Delhi...

Indiarako harrigarria

Gotzon Garate (Elgoibar, 1934), euskal idazle oparoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Ugari bezain askotarikoak ditu liburuak:marxismoaz, euskal eleberrien kondairaz, atsotitz eta esaera jatorrez...

Eta galdera da?

Zein da Indiako hiriburua ?


BALDIN BADAKIZU DEITU
943 75 13 04 TELEFONORA.

Animo!
India Harrigarria elaberriaren bi ale dauzkazu zure zai!

Pil Pilean eta Elkarlanean bat eginda,
Euskal Literaturaren alde

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak
Santa Ana, 13 – 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Kiru Muntaiak
Blas Elizburu Kortabarria
Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.
Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20



Kotxe bat baino gehiago, bizitzeko era bat.

Peugeot 306 Break-ak

Gidatzea bakarrik da plazerra?
Ez, benetako plazerra bidaiatzea da,
leku berrien bila joatea eta eroso sentitzea edozein lekutan, tira, etxean bezala. Espazioa eta ekipamentua, hori da eskeintzen dizuna



Peugeot 306 Break-a, bidaia ulertzeko beste ulertzeko beste era bat, non garrantzitsuena ez den iristea, iritsi bitartean gozatzea baizik. 1.825.000 pezetagatik eraman zazu erabat ekipatutako Peugeot 306 Break bat, giltza eskuan.

1.825.000 pezetarengatik.

PEUGEOT ETORMOBIL, S.L. CONCESIONARIO PEUGEOT

Otalora Etorbidea, 22 - Eibar (Gipuzkoa)
Tfnoa. 943 20 09 96 - 66 - 943 20 25 85 - Fax 943 20 36 27

306 PEUGEOT

11.268,98 • .Aholkatutako prezioa 306 Boulevard 1.6 Break. Penintsula eta Balearrak, zergak, garraioa eta gasolina Prever Plan berria barne. Hilaren azkenena aurretik matrikulatutako ibilgailuendako balio du.

UDAL BATZORDEEN BERRI

2001eko irailaren 3an egindako ohiko saioa

Finka turkea Udalaren eta
"Industrias GOL, S.A."ren artean

Udal Batzarak aho batez onartzen du Udalarenak diren eta udalerri honetako Sagar Erreka auzoan dauden bi finkaren guztizkoa, "Industrias GOL S.A." enpresaren jabetzakoak diren eta udalerri honetako Ezozi auzoko Espilla baserri inguruan dauden beste horrenbeste finkarengatik trukatzea. Ordainetan, ehun eta berrogei eta sei mila laurehun eta hirurogei eta bederatzi pezeta emango dizkio dirutan Udalak aipatu enpresari, "Industrias GOL, S.A." enpersaren finken guztizkoak balio gehiago duelako.
Trukean ematen diren finkak, kargarik gabekoak guztiak, hurrengo hauek dira: Soraluzeko Udalaren jabetzako finkak, zazpi milioi bostehun eta hiru mila bostehun eta hogei eta hamaika pezetatan zenbatetsiak guztira:

1.- Bolatokia. *BARRENABURU* barrutiko lursaila;
2.- Hiltegia. Soraluzeko Sagarraga auzoko lursail.

Industrias GOL S.A.ren jabetzako finkak, zazpi milioi seiehun eta berrogei eta hamar mila pezetatan zenbatetsiak guztira:
1.- Nasicoa izeneko lursaila.
2.- Soraluzeko espilla baserriaren izan zen Nasicoa sailaren zati den lursaila.

Gobernu Batzordeak 2001eko irailaren 3an egindako ez ohiko saioaen aktaren muntioa euskarazko bertsioan.-



GOL lantegixak, erakin berri bat egingo dau Sagar Errekan.

*Idazki eta jakinarazpenak

a) Arane udal Kiroldegiaren 1.faseko zaharberritze lanen ohiko 1. Ziurtagiria onartzea eta "Construcciones Murias" lanen kontratistari 12.829.870 pezeta ordaintzea.
b) Udalerri honetako Larrialdi Plana berritzeko, "Teknimap" enpresaren 1/122 eskaintza onartzea, 500.000 pezetako aurrekontuarekin, BEZa barne, eta burutzeko hiru hilabeteko epearekin.
c) Udaleku Irekietan aritu diren begiraleen soldatak osatze aldera, bigarren ordainketa bat egitea.
d) Baratze baserri Eskolari 251.160 pta. Ordaintzea Lehen Hezkuntzako 5. Eta 6. Mailetako ikasleentzako barnetegiko matirkula gastuengatik.
e) Pil Pilean Euskara Elkarteari 45.000 pta. Ordaintzea amodiozko Eskutiz Lehiaketako sariengatik
f) Santa Ana 12ko eraikina lehendabiziko aldiz okupatzeko baimena ematea "Zetalde S.L."ri, aurrez, 125.269 pezetako obra amaierako kitapena ordaindu behar duelarik.
g) Sagar erreka auzoko 9.zenbakiko etxe ondoko mendi-hegalean egindako indartze-lanen %50 dagokion "Construcciones Galdiano"ren faktura onartzea, 4.887.622 pta.ko zenbatekoz, BEZa barne.
h) "Erregetxe-R.5. Eremuko etxebizitza berrietarako iristerraztasun Proiektua (1.Fasea)" izenaz ezagutzen den obrari dagokion ohiko 4.ziurtagiria onartzea eta "U.T.E.ERREGETXE" lanen kontratistari, 62.279.661 pezetako zenbatekoa ordaintzea.

2001eko irailaren 10ean egindako saioa


Udal Batzarrak gehiengoz erabakitzen du, EAJ-PNV (bost), PP(bat) eta EA ko (bat) Batzarkideei dagozkien aldeko zazpi botoz eta PSE-EE (PSOE)ko batzarkideari dagokion aurkako botoa, 2.001eko irailaren 10ean egindako saioaren akta onartzea, PPko Zinegotzi den Javier Nùñez Àlvarez Jn.k proposatutako aldaketa egin ondoren.
Soledad del Bosque Zarobe, PSE-EE (PSOE)ko Zinegotzi, ondokoa esaten du gaztelaniaz aurkako boto azalpen bezala: Soraluzetar gazte horiek izandako auto istripu larria penagarria iruditzen zaigun arren, guk Alderdi Sozialistak ezin dugu akta onartu. Auto istripu horretan, Iñakik eta Asierrek heriotza aurkitu zuten eta Irantzu zaurituta atera zen; eta azken honi, lehenbailehen senda dadila desio diogu benetan. Hala ere, Alderdi Sozialista ez da, inondik inora, hain ondorio larriak izan dituen auto istripu horren errudun, zeren eta auto istripu bat izan da, eta ez besterik, gure errepideetan egunero suertatzen diren horietako beste bat.

Edu Pombar eta Egoitz Unamuno



PIL PILEAN ALDIZKARIXAN
IRAGARKIREN BAT JARRI NAHI BADOZU, DEITTU
943 75 13 04 TELEFONORA
(JON)

Sukaldaritza



Hileko Sukaldaria

Ale honetan Iñaki Larrañagarengana jo dogu errezeta baten eske. Iñakik etxean eta soziedadean ikasi dittu sukaldeko sekretuak eta guri batzun batzuk kontatu doskuz. Argazkixan bera eta bere neskalaguna Itziar Agirre sartu dittugu, “banandu ezinak diralako”.

"Bakaillau nahaskixa pikillo saltsan"

Osagaiak:

4 Lagunendako
- 100 gramoko 8 bakaillau zati.
- 4 arrautza
- 2 kipula
- 3 pipar berde
- 3 berakatz ale
- litro oliba olio
- koilarakada 1 perejil xehetu
- pikilloko 4 pipar
- 2 dl Saltsa amerikarretik
- koilarakada 1 nata likido
- gatza

Zela egin:

Bakaillaua beratzen jarri (24 orduan, 3 aldiz ura aldatuaz) etara, ura kendu eta zatitu. Bi koilarakada olixorekin, kipula xehetuarekin, berakatz aliekin eta pipar berdiekin, lurrezko ontzi baten ipini berotzen. Su bajuan egitten laga urre koloria hartu arte. Zatittutako bakaillaua gehittu eta etenbarik mobidu, gelatiniak urten deixon. Mobitzen dan bittartian olixua botatzen jako (tantaka tantaka) eta segi mobitzen geratu barik, guztiz nahastuta geldittu arte. Sua bizittu eta gatz pixkatekin irabiatutako arrautzak gehittu, espatula batekin nahastuaz goxuena erretiratu. Batidoraren ontzixan, pikillo piparrak eta saltsa amerikarrak jarri. Birrindu eta bota bat izan arte nahastu. Plater baten saltsia ipini eta nahaskixa eta perejila bota gainian.

Oharra:
Saltsa amerikarra izan barik, tomate frigitua be erabili leike.

Lehiaketia



Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke

DEITTU BIZKOR BIZKOR

943 75 13 04

Ilea paindegia
Peluquería Marisa
Rabal 19 - 1
Tfnoa 943 75 22 43
20590 SORALUZE


MAPFRE
MAPFRE SORALUZE

JUAN LUIS IBARZABAL ARRIETA
JULIA IBARZABAL ARRIETA
Gabolats, 5 b
Tel.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Eskuko telfnoa: 649 49 79 59 Faxa: 943 75 16 10
20.590 SORALUZE

Ibilixan ibilixan bertso eskolia

30 Neska mutikok emon dabe izena



Herri ikastetxeko neska mutikuak bertso eskolako bideua ikusten.

Urtero moduan, neska mutikuak eskolan hastiarekin batera, Ibilixan Ibilixan Bertso Eskoliak be ekin dotsa bere kurtsuari. Xxxxxx ikaslerekin, aurten be Soraluzen bertsotarako afiziñua badaguala erakutsi dabe gaztetxuak.

Aurtengo ikasturtian be, eskolaz kanpoko ekintza asko egingo dittuzte ikasliak, bertsolaritza zer dan eta ze giro sortzen daben bertatik bertara ikasi deixen. Herriko eta inguruko herrixetako bertso saiuak entzutera juan (Arratietakua, herriko bertso afarixa, San Martzialetakua Bergaran, Bertsolari Gaztien saiora Eibarrera, Bertso Eguna eta abar...), herriko bertso giroko ekintzetan parte hartu (Gabonetan eta Santa Agedetan kalian eta baserrixetan, auzuetako jaixetan saiotxuak, Gaztañerre perixan bertso paperak, kopla kantari erramuak saltzen, Kantu Afariko bertso saiotxua eta abar), bertsolari ezaguneri bisittak egin, txapelketetan parte hartu (eskolartekua eta bertso paper lehiaketak) eta noski afari eta merendolak noizbehinka.

Badakizue, bertsuak entzuliak bihar dittu! Ia entzuteko modukuak botatzen asmatzen dogun !

Hona Hizkuntza Gutxituen Egunian kantatutako bertso batzuk:

Gure euskera maittia
galduta dagola ia,
esplikatuko dogu aguro
horren zergaittia.
Euskerarentzat nagia,
ta erderaz egittia,
euskaldun askok hartu doskue
holako bidia.

Gauz hori aldatu dadin
egin dezagun alegin,
hemen erdera entzute horrek
egitten dosku min.
Danok egin dagigun zin,
gazte eta zahar berdin,
"gure hizkuntza gora altxatu
ta euskeraz egin.

Doinua: Dozena bat bertso berri.
Egiliak: Jone Elizburu, Maite Kintanilla eta Iñaki Arribillaga.

Horoskopoa

Ygarten Ygartendotela



***ARIES* martxoaren 21etik apirilaren 21era**
Indartsu nabarituko duzu zeure burua. Ezusteko zoragarriak izango dituzu. Familia eta lagunak erakarriko dituzu.
Pil-eguna: 14



***TAURUS* apirilaren 22tik maiatzaren 21era**
Arau berrietara moldatuko zara bizitzan aurrera egiteko, nahiz eta batzutan arau hoiekin bat ez etorri.
Pil-eguna: 5



***GEMINIS* maiatzaren 22tik ekainaren 21era**
Gorabehera asko nabarituko dituzu, latza izango da batzutan egoera. Hala ere egora honetatik garaile irtengo zara.
Pil-eguna: 22



***CANCER* ekainaren 22tik uztailaren 22ra**
Zeure buruarekin gustora zabiltza eta dena kontrolpean duzula uste duzu. Baiña kontuz norbait ezagutuko duzu eta luzarora begira arazoak ekarriko dizkizu.
Pil-eguna: 18



***LEO* uztailaren 23tik abuztuaren 22ra**
Lagunekin ondo pasatzeko eta familiarekin ondo egoteko garaia da. Harremanak sendotzeko denbora da ahalegindu bide horretatik.
Pil-eguna: 23



***VIRGO* abuztuaren 23tik irailaren 22ra**
Bizitza berri bat hasteko garaia heldu da zeuk dakizun horri gauza batzuk esan eta joan biadaia paregabe bat egitera. ez pentsatu birritan pentsatu eta egin!!
Pil-eguna: 15



***LIBRA* irailaren 23tik urriaren 22ra**
Konpromisoak esan nahi duen gauza orotaz aldenduko zara. Bide okerra da aurpegia erakutsi eta aurrera egiten baduzu ezusteko politak aurkituko dituzu.
Pil-eguna: 17




***ESKORPIO* urriaren 23tik azaroaren 22ra**
Nahi duzun hori egingo duzu eta behar duzuna egiten zailatuko zara. Bigarren maila baten utziaz lehen nahi zenuena. Maitasun kontuetan etorkizun beltza duzu.
Pil-eguna: 18



***SAGITARIUS* azaroaren 23tik abenduaren 21era**
Lehengo arazoak konpontzen ikusiko dituzu. Egora nola aldatzen den ikusiko duzu. Ezinhobeto ikusiko duzu zeure burua.
Pil-eguna: 20



***CAPRICORNIUS* abenduaren 22tik urtar. 20ra**
Ideia berriak barra barra etorriko zaizkizu burura eta ideia baliotsuak izango dira. Ingurukoak ados egongo dira zurekin.
Pil-eguna: 14



***AQUARIUS* urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra**
Denbora luzerako baliotsuak izango diren gertaerak izango dituzu. Ez kezkatu gauzak oker ateratzen bazaizkizu laister garai oparoak helduko dira.
Pil-eguna: 1



***PISCIS* otsailaren 21etik martxoaren 20ra**
Ingurukoak maitatzea eta laguntzea ondo dago, baina norbera ere hor dagoela ere kontutan hartu behar da. Merezi duenaren esker ona jasoko duzu.
Pil-eguna: 29

Erretratu zaharra

1932ko Eskolako erretratua



Sarrera, ez dakigu ziur ziur, baina 1932 inguruan etaratako erretratua da. Plaza Zaharrian oin Batzokixa dan eraikinaren aurrian.

1.Goiko ilaran (ezkerretik eskumara): --,Guillermo Ariznabarreta,--,Amaya Gallastegui, Maribel Olaizola, Juanita Santamaria, Rosarito Bolumburu, Mª Pilar Elizburu, Arantxa Aldazabal, Maritxu Larreategi, MªCarmen Izaguirre, José Mª Aizpiri, Gonzalo Bereikua.

2. ilaran: Ignacio Aristi, Luis Eguren, Luis Mª Maiztegui, Mª Carmen Larrañaga, Begoña--, Juanita Astiazaran, Alberto Txurruka, Maribel Artadi, Magdalena Iriondo, Magdalena Rodriguez, Mª Cruz Etxaniz, Paco Alberdi, Ramon Lersundi, Luis Etxabe, Javier Mendicute

3. ilaran:--, Javier Galarraga, Angel Ernaltez, --, Lore Juaristi, Mª Asun Banda-Ormaetxea, Marisita Madina, Rosa Mª Suarez, Elisa Guermont, Emilita Altuna, Esperanza Alberdi, Purita Urrestarazu, Ana Mª Argarate, Ibone Izaguirre, Moises Uriarte, Javier Maiztegui, Agustin larrañaga

4. ilaran: --, Jose Luis Ucin, Angel Orbea, --, --, Alexander alberdi,--, Serafin Bolumburu, Maribel Sebal, Jasone Alberdi,---, Javier Elgeta,--, Doroteo Retolaza.

5. ilaran: Jose Olamuzu, --, Jose Mª Igartua, --, Eustaquio Aguirrebeña, Marivi Maiztegui,--, Elvire Iriondo, Ezozio Errasti, Mª Luisa Lascurain, --, Mª Angeles Mugica, Miguel Elizburu.

Andereñoa: Maria Larrañaga
Karmentxu Larrañaga eta Lorentzo Oregik lagata.

Kontu Zaharrak "Kanpaiak"

Kontatu bihar dotena, anekdota bat da edo hobeto esanda, Soraluzeko Herriko historio bat, urte askoan zihar, urte asko askotan zihar ! Soraluzen egitten zan ohitturia izan zana, oso politta gainera, ez dotena oso ondo gogoratzen, ohitturia galtzen juan zalako eta gainera Santa Anako konbentua 60 edo 70.hamarkadan kendu zebelako.

San Andresko ermita, Parrokiko Eliza eta Santa Anako Konbentuak, zeruan ekaitzan gogorren bat zekarten trumoi lainuak azaltzen ziranian, Arrateko gainian eta Elosun be oso gogorrak izaten ziranak, eta orduan hasten ziran San Andresko kanpaiak "Han,han,han,han.." eta denboratxo batera, kanpai hots asko entzun ostian, Parrokiko kanpandorria hasten zan "Nun da ?, nun da ?, nun da ?..." eta azkenengo Santa Anako konbentuko kanpaiak, "Santa Ana kalian, Santa Ana kalian, Santa Ana kalian..." eta herriko Parrokuak, ekaitzak gogorrak eta suntzitzailiak izan eta ur haundirik eta landutako lurrak galdu ez zaittezen ur bedeinkatuarekin balkoira urtetzen zeban.



Baina, horren soinu ederreko kanpaitxo eder harek ez ziran desagertzen, ezta euren esanahixa be.

Mari Tere Aristi
Pil Pileanen itzulitta.

ZORIONAK!!!



Egoitz Unamuno
2.001-09-16
Zoronak !!
Orduan bai ekala osasuna eta indarra eskalatzeko, oiñ etxerako aldapan be deskansau egin bihar izeten dok.
Hasi hari puenting egitten baina soka barik

GUAPETON !!
Pil Pileko neskak.

Mertxe Eizagirre
2.001-09-25
Zorionak amatxo!
Ikusten dozun moduan aurten akordau gara zure egunakin. Ondo-ondo pasau deizula opa dotsugu **familixa danak**.

Amaia Laskurain
2.001-09-28
Zorionak ta urte askotarako!
Gailurrak igotzian sentitzen dozun poza sentidu deizula beste urtebete betetzian be.
Mendi taldian partetik.

Ana Rosa Maiztegi
2.001-09-29
Zorionak mendizale!
Hola jarraitzen badozu, laister Everestera!
Mendi taldian partetik.



Mikel Santiago
2.001-09-30
Zorionak !!!
Aupa Mikel, serixo hao eh !! Trankil pasauko jak, oindio beste mordo bat ospatu bihar dittut mutil, egon hari trankil.
Pil Pileanekuak etabar.

Aritz Laskurain
2.001-10-03
Zorionak !!!
Zorionak pelotari! Eugin kontrako partidua noizko? **Muxu bat etxekoen partez.**

Goretti Goiogana
2001-10-6
Zorionak !!!
Zorionak pottola eta urte askotarako. **Etxekoak**



Aitor Madrid
2.001-09-15
Zorionak !!!
Aitor, aldizkarixan maketaziño akats larregi dare! Aitor aldatu hau, Aitor aldatu bestia. Aitor hau biharko. Aitor zorionak eta urte askotarako.
Pil Pileko lagunak maittasunez.

Mertxe Arenaza
2.001-09-24
Zorionak potxola!
Zurekin pasautako egun danak zoragarrixak badira be, hau oindio berezixagua. Ondo-ondo pasau deizula, zure **familixian partez.**

Ainhoa eta Neli...
Zorionak!!!
Plaentxik be badazkala bere gauza onak eh?? Zuekin bi gehixao herrixan, badoia popularizñua hazten.. urte askotarako ta egun ona pasau zuen urtebetetzetan!!!



Giller eta Guru
Zorionak!!!
Pil Pileaneko lan taldeko danok, bihotz bihotzez, eztei egun oriontsu eta ezkon bizitza oriontsuago bat izatia opa dotsuegu ! Zorionik beruenak !!
Hori, gure despedidatik bizirik urtetzen badozu noski !

Dohaineko Iragarkixak

LOKALA SALGAI

-Ura eta argia ditu.
-240 m2. 1. solairua
-Amillaga industrialdean.
Telf.: 607 76 27 41

***LISKER* Eibarko berbena taldea**

Abeslari baten bila dabil
(hobeto gitarra edo trikitixa joten badau)
Telf.: 943 20 04 25 (Javi)
Eskuko telf.: 627 53 78 62

Oharra

Iragarkiren bat ipintzia nahi badozu eta ez badakizu nun, hemen daukazu aukeria. Daittu Pil Pileanera segittuan, 943 75 13 04 telefonora eta laga iragarri nahi dozuna erantzungailuan. DOHAIN da.

ezkondutakuak

Jose Gabriel Nuñez Gomez
-
Ainhoa de Castro del Bosque

jaixotakuak

Markel Ariznabarreta Muro
Julen Soraluze Orbea
Miren Josune Montero Hernandez
Javier Rodrigez Galarraga

hildakuak

Juana Oregi Leturiondo
Carmen Madinabeitia Barrutia
Sinforosa Iraola Larrañaga

telefonoak

Udaletxea	943 753043
Faxa	943 753112
Udaltzaingoa	943 753024
Bake Epaitegia	943 751989
Arane Kiroldegia	943 752466
Osasun Etxea	943 752259
Larrialdiak-Elgoibar	943 743354
Larrialdiak- Donostia	943 461111
Zabaleta Botika	943 751384
Escala Botika	943 751638
Itxaropena Jubilatuen Etxea	943 752330
Zaharren Egoitza	943 751136
Soraluze Kirol Elkartea	943 751029
Plaentxi Herri Ikastetxea	
Haur Hezkuntza	943 751544
Lehen Hezkuntza	943 751937
Soraluze DBH Institutoa	943 752365
Euskaltegia -AEK-	943 751434
Pil-Pilean Aldizkaria	943 751304
Helduen Heziketa Iraunkorra -E.P.A.-	943 753017
Taxia	943 751993/ 607 220808
Postetxea	943 751947
Apaiz Etxea	943 751370
Ertzaintza –Bergara-	943 765340
SOS Deiak	112

autobusak

PESAko autobusen ordutegixa jakitzeko
902 10 12 10
telefonora deittu

Pil Pilean Aldizkariko Harpidetza

Egin biharrekua: Deitu 943 75 13 04 telefonora eta emon bialtzia nahi dozun horren izen eta helbidia. Gero, sartu 1.000 pezeta (urteko kuotia) Euskadiko Kutxan edo Gipuzkoako Kutxan Pil Pileanen izenian daren kontuetako baten.

NAGUSIXEN TANBORRADAKO ANTOLATZAILIAK

Nagusixen tanborradan parte hartu dozuen herrittar danori eskerrik beruenak emon nahi dotsueguz beste behin tanborradia aurrera etaratzen lagundu dozuelako. Esker berezixak aurreko urtietako antolatzailiaori emon doskuzuen maittasun eta konfidantziagaittik. Datorren urterarte !

mezen ordutegixa

Astegunetan:
Arratsaldeko 19:00tan (elebiduna)

Sapatutan:
Arratsaldeko 19:00tan (euskeraz)

Domeka eta jai egunetan:
Goizeko 9:00tan (gaztelaniaz), 11:00tan (umeentzat euskeraz) eta 12:30tan (elebiduna)

iletargixan gorabeherak

Ilberri — Urriaren 16a
Ilbete — Urriaren 2a
Ilgora — Urriaren 24a
Ilbehera — Urriaren 8a

Zuen hildakoen eskela, eskerrona edo urteurrena jarri nahi baduzu, oraintxe duzu aukera Pil Pileanen.

Bertso Afaria

Anjel Mari **PEÑAGARIKANO** eta Maialen **LUJANBIO**rekin Bertso Afarixa Armendin.







Umoria eta jan ona ! Trikitixa eta bertsua, afaloste zoragarri bat pasatzeko. Bertso Paperetako sarixak be bertan banatuko dira.
Urrian 26xan gabeko 21:30etan.


Gai jartzen: Gorka Prieto

Sarrerak:Tabernetan

Preziua: 3.000 pezetatxo

Antolatzailia: Euskalgintza (Pil Pilen, AEK, EHE) eta Udaleko Euskara Batzordiaren laguntzaz.

Pil Pilean





Asier Heriz eta Iñaki Saez

"Ez dut uste oso hurbileko senide izango garenik, baina munduan bidegabekeri bat gertatzen den bakoitzean amorruz dardarka jartzeko gai bazara, gogaide eta lagun gara, eta hori senide izatea baino askoz garratzitsuagoa da."

Che Guevara


Gazteak gara eta, indarra sobera altxa dezagun gora euskara. Gazteak gara eta, indarra sobera atera behar dugu kalera!

Iñaki Saez

Zuen bidia jarraittuko dogu ! (Mobidako lagunak)



Zuzeneko akustiko zein elektrikoak eskaintzen dituen kantari urbanoa.



Joseba Irazoki, Berako musikariaren laukote berria. Pop melodiko eta anbientala.

Hamar urtetan Pedro Guerra eta Andrés Molinarekin "Taller Canario"n aritu ondoren bere lehenengo lan luzea. Oraingo honetan Tapia ta Leturiarekin.



GAZTELUPEKO HOTSAK

gaztelupeko hotsak
tel.: 943 753 016 / faxa: 9430750 139
e-posta: gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com



Soraluzeko aek

Maila guztiak:
EGA, alfabetatzea, mintza-praktika

Eta gainera, datorren ikasturterako:
* Mendi irteerak.
* Irteera kulturalak.
* Barnetegiak.
* **Guraso/Hezitzaileen eta seme-alaben arteko ekintza bateratuak.**

Hau guztia **EUSKARAZ**, imagina dezakezu?

Matrikulazio epea urriaren 6ra arte.

Zuk nahi baduzu, hau guztia, errealitate bihur dezakezu; AEK-k euskara, hezkuntza eta aisialdia batzen dituelako, ezin dezakezu aukera hau galdu.

Soraluzeko AEK euskaltegia
Frontoia 5-2
Tlfonoa:943-751434

* **Udalaren laguntzaz**